

Zahar berriak



BEIA SALABERRRI
IRAKASLEA



PAULA ESTÉVEZ

Diskurtso batek euskalgintza gainditutzat ematen du. Entzuna da eta onartua euskalgintzako egituren partetik, uste dut. Badakigu azken urteetako bilakaeran, indarrak eta kemena higatu zaizkigula, neke dela indarberritzea, euskarak ez duela egin aitzina, ez dela inposatu. Ideia horretaz jabe gara, ez baikara itsu, ez baitugu iparra galdu. Diskurtso hori ez da harriagarria, ez da berria eta erranen nuke zabaldua ere dela.

Adibidez, eta zehazki, uda erditsutan zabaldu zen hegemonikotzat kalifikatu hainbat euskal komunikabidetan *Euskalgintza zaharra eta berria* izeneko iritzi zutabe bat. Kontzeptualizazio freskoaren haritik, analisisa ezkor bati juntatzen zitzaion ikuspegi baikor bat, adieraziz karrikak beteak direla euskalgintza berriko kidez eta gerorako apustu egiten dutenez.

Zalantza sortu dit, batez ere aipatzeko moldea ez baitzait egokia iduritu. Izan ere, hainbat hitzetan erdeinua sentitu dut euskalgintza zaharra baino tradizionala deituko nukeenari, langileei, egiturei, oro molde biziki orokorrean, izendapenik gabe, ipar eta hego bilduz. Euskalgintza berriaren definizioa aldiz, lausoa zen, zehaztapena merezi luke.

Euskalgintza zaharra zerri askara bota behar omen litzateke, *ema* eta *giza* galduz osatua delako, zeinek paktatzen baitute botere menderatzaileekin. Neurri batean egia da. Bai, azken urteetan, Euskal Herri kontinentalean behintzat, euskal egitura ia guziek hitzarmenak dituzte botere publikoekin. Bilatu ziren aliantzak dira. Hainbat jenderen lanak bideratzeko balio dutenak, lansariak ordaintzeko, lokalak entretenitzeko eta eskaini zerbitzuak garatzeko. Aliantza horiek zepoak izan ote ziren? Baliteke, baina geunden puntuan ez zegoen beste aterabiderik, ez gara kronologia historikotan luzatuko. Horrek alde txarrak ditu: menpekotasuna, ekonomikoa has-teko, etengabeko negoziazioetan ibiltzea, abiadura motelean. Hori gabe ez legoke ikastoletan irakaslerik, ez legoke euskal hedabiderik, ez gau-eskolarik, ez kulturgintzako ekoizpen franko.

Euskalgintzako zaharrak ez nituzke hain okaztagarriki deskribatuko, etsaiez tronpatuz. Norbait erasotzekotan, ez nuke euskalgintza mespretxatuko, eskasak beste batzuegatik baitira, instituzio propioak ez izatearenak hasteko.

Euskalgintza berriak ilusioa ematen du. Azken urteetan entzuna dugu horretaz, ba omen datorrela mugi-

mendu berria, berritua. Galdetzean ea non ote den, zein den, gauzak ez dira hain argi. Euskalgintza tradizionalaren marjinan, euskalgintza ez-instituzional bat ikusten dugu: nukleo txikitik barreiatua lurraldean gaindi, likidoa, mobilizazio azkar eta laburrak, anitzak burutzen dituen, *happening*-aren heinekoak kasik. Bai, periferian daude talde anitz, ekimen anitz. Bai, periferiatik leku zentralagoa behar dute, isolamendutik eta anekdotikoak izatetik gailendu. Haatik beldur naiz, nola edo hala, euskalgintza berri horrek ere menpekotasunik ez ote duenez: diru laguntza tipi bat adibidez, edo lokal bat, edo hautetsi baten babesak?

“Euskalgintza berria” behar da. Denak gaude zain ea noiz egituratuko den, ea noiz agertuko den hirugarren indarra dei genezakeena, menpekotasunik gabekoa, gu ere inplika gaitezen bertan, langile, sortzaile, militante guziak baikara egarri, besteak bezainbat, aukera eta dinamika berriez. Orduan iragartzen da zerbaiten sortzea? Kritiken ondoan, proposamenak edo azalpenak nahi baikekituzke, irakurri ditugunak baino zehatzagoak, Eskertuko genituzke, baita babestuko ere, urteak baitira asmatu ezinean gabiltzala. ●